

JARDUERAREN ERREGISTRO-IZENA	BIKOTE EGONKORREN ERREGISTROA
OINARRI JURIDIKOA	DBEO: 6.1.e) Interes publikoaren alde egindako tratamendua. Udal eskumenak erabiltzea, Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikorako uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legean arautakoarekin bat eta ezkondu gabeko Bikote Egonkorrak arautzen dituen Udal Ordenantzari jarraikiz.
TRATAMENDUAREN XEDEAK	Ezkondu gabeko bikote egonkor gisa baturik daudela jasota geratzeko interesa duten pertsonen erregistroa. Elkartzea gauzatu dela idatziz jasotzeko eta ziurtagiriak luzatzeko erabiliko da.
NOR	Ezkondu gabeko bikote egonkorrak eta udalerrian erregistratuak.
DATUEN KATEGORIAK	Izen-abizenak, helbidea, NAN/IFZ, sinadura. Ezaugarri pertsonalen datuak. Bizikidetzata-data eta izen-ematearen data.
HARTZAILEEN KATEGORIA	Ziurtagiriak, edozein alde eskatuta edota Epaileek eta Justizia Auzitegiek eskatuta.
NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIAK	Ez dago.
EZABAKETA-EPEA	Xedea mantentzen den bitartean gordetzen dira, aplikazio-araudiarekin bat (Artxiboei eta Dokumentuei buruzko Foru Legea eta 51/2016 Foru Agindua, ekainaren 14koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako toki entitateen dokumentuak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak onesten dituena).
SEGURTASUN-NEURRIAK	Administrazio Elektronikoaren esparruan ezarritako neurriak urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan daude aurreikusita; dekretu horrek Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen du. Beste esparru batzuk: Datuen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko segurtasun-neurriak: Sarrera-kontrola. Identifikazioa eta autentifikazioa. Euskarrien kudeaketa. Gorabeheren kudeaketa eta segurtasun-arrakalak. Erabiltzaileen eginkizunak eta betebeharrak Segurtasunezko kopiak. Segurtasuna telekomunikazioetan.
ENTITATE ARDURADUNA	<b>ARESOKO UDALA</b>